32 zka 1995.eko abuztua

# GEU GASTEIZ

Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria

FRANKEO ITUNDUA 46/27



# Gasteiz jaietan

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




# ZURE HARATEGIAK

Z
GARMENDIA
HARATEGIA-URDAITEGIA



ANDALUZIA13
☎ 28 79 42
GASTEIZ




SANTi
HARATEGIA-URDAITEGIA

PARAGUAY 17
☎ 270790
GASTEIZ

XABIER
AIZPEOLEA
HARATEGIA




Florida Azoka
2 eta 3 ☎ 13 24 48

Abastos Azoka
2 eta 3 ☎ 26 78 97

GASTEIZ



JOSEBA
HARATEGIA
PARAGUAY MERKATUA
10 ZENBAKIA
El Pilar auzoa • ☎ 25 66 89
GASTEIZ

**gure lurraldeko haragi**
**samurretan espezialduak**
*aukerarik zabalena*
*kalitaterik onena*


Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

geu gasteiz Abuztua

GASTEIZKO JAIAK

1. orrialdetik 32.ra

Jaigiroa



Kontzertuak



Pertsonaiak



...eta askoz gehiago.

# Arratsaldeko seiak puntu-puntuan



***MANUEL MACHADOK** Ignacio Sánchez Mejía zezen-hiltzaileari egindako erromantzeak zioenarekin jolas eginez: arratsaldeko seietan, arratsaldeko seiak puntu-puntuan.*

Baina zer dugu Gasteizen abuztuaren 4ko arratsaldeko seiak puntu-puntuan? Aparteko ospakizun bat, jendetsua, gure mugetatik kanpora aski ezaguna ez bada ere. Une horretantxe hasten dira Gasteizko jaiak eta, hasierako ospakizun horren lekuko izateko, Gasteizko kaleek gainez egiten dute gure hiriaren erdialderantz, hau da, Andre Mari Zuriaren plazarantz abiatzen diren gasteiztar andana izugarriak beren altzoan jaso ezinik.

Gasteizko jaietan gasteiztarrak dira protagonista: horixe da haien ezaugarririk behinena. Kalez kale ikus ditzakegu, erruz, jaietan gogotik parte hartuz, lehenengo egunetik azkeneraino; txupinazoa jaurtitzen denetik azken trakaraino, inor ez da geldirik egoten gure hiriko jaiak diren bitartean.

Minutuz minutu, azken segundura arte, arratsaldeko seiak ematen duten sei kanpaikadeetatik lehenengoak jo baino lehen, plazan bertan dagoen dorreko erlojuaren begi handiari baino ez diote erreparatzen hara bildutako milaka gasteiztarren begiek, orratzak erabat luze daudenean jaietako lehen suziriaren leherketak bihotz guztiek eutsi ezin dioten alaitasunarekin bat egin dezan. Une horretantxe gorak eta aupak nagusi izango dira aidean musikarekin nahasirik, gasteiztarron pozaren erakusgarri.

Hara bildutakoek eztarria hausterainoko ahaleginak egiten dituzte, horren guztiaren ondoren, Ignacio Aldecoa ipuingile gasteiztarrak zeritzon "txontxongilo poztuna"-k ("títere jocundo") goi-gotik behera egiten duenean. Zeledon dugu, pertsonaia berraragitua, erdi errealitatea, erdi mitoa, gure jaien funtzezko osagaia, Gasteizen eta gasteiztarren irudikapena denez gero. Halere, Gasteizko jaiek badute bestelako funtsezko osagairik: "blusa" taldeak, alaitasuna bazter guztietan barreiatuz dabiltzan gazteak, beren kolore-abarrotsa ezaugarri dutela.

Abuztuaren 4ko arratsaldeko seiek bitasun bat gordetzen dute beren baitan: zeruaren eta lurraren artean dagoen muga, alegia, erlijio eta profanu denaren arteko tartea. Izan ere, bi hauek ditugu Gasteizko jaien ezaugarririk nagusienak: batetik, Andre Mari Zuria, gure hiriaren zaindaria, eta bestetik, Zeledon, babazorroen arketipoa.

Abuztuko lehenengo egunetako ekitaldi jendetsu horien parean, Andre Mari Zuriari eskainitako bi errosarioak ditugu: batetik, abuztuaren 5eko jai nagusiaren bezperan izaten den gaueko prozesio eder eta ikusgarria; bestetik, Egunsentiko Errosarioa, barrukoia eta otoi-eragilea, Alde Zaharreko kaleetan zehar urtero diz-diz egiten duena. Bestalde, Bezpera Nagusiak, ospe handiko ekitaldi gogoangarriak.

Horrekin guztiarekin batera, kaleetako gau-jaien hotsa, barraken deigarritasun zaratatsua eta su festen lilura lehergarria miresten ditugu gasteiztarrok. Eta erdi-erdian, urrezko botoi biribilen distira eta odolaren artean, zezen-jaiak.

Horrelakoxeak dira Gasteizko jaiak; batek daki, beharbada, abuztuko egunik argitsuenetan ospatzen dira are distiratsuagoak izan daitezen.

**VENANCIO DEL VAL**
Idazlea eta "Urrezko Zeledon" saria jaso izandakoa

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria

GEU GASTEIZ
*Gasteizko Euskaldunon Aldizkaria*
**Pedro Asua, 2 3.a**
**Tfno. eta faxa 22 21 53**
GEU
***elkartearen** babesarekin*
*6.000 Aleko Tirada*
*Lege-Gordailua VI-582/92*
*ISSN: 1133-0988*

**Zuzendaria:** Iosu Kintas **Erredakzioburua:** Iñaxio Lopez de Arana **Erredakzio-batzordea:** Leire Lopez de Aberasturi, Asier Perez de Karkamo, Susana Calleja, Itziar Mtz de Santos, Lorea Zurimendi, Miel Anjel Elustondo, Xabier Zabaleta, David Alvez, Ismael Diaz de Mendibil **Komikia:** Iñigo Sarasola **Marrazkiak:** Aitziber Iriondo **Maketazioa:** Alex Badillo, Asier Perez de Karkamo **Publizitatea:** Karlos Fdez. de Betoño **Argazkilariak:** Lukas Etxeberria, Joseba Olalde, David Aguilar, Joseba Unzalu, Asier Perez de Karkamo, Lorea Zurimendi, Edorta Sanz **Kolaboratzaileak:** Txipi Ormaetxea, Juan Jose Kastresana, Iñaki Gauna, Txabi Arnal Gil, Mikel Garmendia
Inprimategia: Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati)
GEU GASTEIZek ez du bere gain hartzen bertan adierazitakoen erantzukizunik



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

GEU GASTEIZ aldizkaria etxean dohain jaso nahi dut.

IZENA: ____________
ABIZENAK: ____________
KALEA: ____________ ZKIA: ______ Pisua: ______
Kode Postala: ____________
HERRIA: ____________

# Kalea mintzo TXOSNEZ

NORK EZ DAKI zer diren txosnak? Nork ez du sekula garagardo bat edo kalimotxo bat hartu txosnetan? Denok, neurri batean edo bestean, ibili izan gara inoiz txosnetan parrandan, dantzan edota paseoan. Baina, haien kokapena dela eta ez dela, tirabiraren bat edo beste sortu da txozneroak eta Udaleko ordezkarien artean. Badirudi gauzak baretu direla momentuz. Gasteiztar batzuek dute hitza orain.

*1. Gogoko al dituzu txosnak? Toki egokian al dira?*

*2. Begi onez ikusiko al zenituzke zure kalean ezarriko balituzte?*

**Kazetaria: Juan Jose Kastresana "Gutxi" • Argazkiak: Joseba Unzalu**



LORENZO ARAGUNDE
igeltseroa

**1.** Bai, gustatzen zaizkit eta uste dut leku onean daudela.

**2.** Erdialdean balitz, hobeto ikusiko nuke. Baina, egia esanda, periferian bizi naiz eta ezin dut gai honetaz hitz egin txoznen ondoan biziko banintz bezala.

# GASTEIZKO JAIAK

**BERTSOLARIA:**
Rikardo Glz. de Durana
**DOINUA:**
Zortziko nagusia -edozein





**I**

Abuztuaren lauean hasi
arratsaldeko seiretan
bederatzian bukatzen dira
ta gasteiztarrak penetan
denetarikan egiten dugu
jai egun eder hauetan
bertso saioa, zezenketa ta
agian lana txoznetan.

**II**

Jaietan berdin-berdinak dira
egun argia zein gaba
bihotza pozik dugunez gero
dantza, brinko ta algara
askok edana, porroa eta
beste hori beharbada
bost egunotan Zeledon bezain

zure euskal
LIBURUDENDA
Plaza Berria, 14
Virgen Blanca, 1
Tfnoa: 23 16 79 GASTEIZ
Lerrikoia

arcaya
Portal de Villarreal, 22-24
Tfnoa: 26 06 58
Portal del Rey, 21
Tlfnoa: 28 08 69
SOINUA
IRUDIA
ARGIZTAPENA
ELEKTRAGAILUAK
OPARIGAIAK

KOADROAK
MOLDURAK
LAMINAK
MARRAZKIAK
zurbeltz
MAGDALENA, 2 • TFNO: 13 27 20



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



MARIA PILAR SAEZ DE BURUAGA
etxekoandrea



FERNANDO SOPELANA
irakaslea



MARIA BLANCA GARCIA
tabernaria



ALVARO PZ. DE GAUNA
ikaslea



NURIA SUAREZ
turismoko langilea

**MARIA PILAR SAEZ DE BURUAGA**

**1.** Ondo ikusten dut, hara joaten ez banaiz ere. Halere, nahiago dut Floridako parkean egotea oraingo lekuan baino.

**2.** Egia esan, ez litzaidake gustatuko hain hurbil izatea.

**FERNANDO SOPELANA**

**1.** Bai, oso gogoko ditut. Uste dut festa alternatiboak antolatu behar direla. Horretarako egiten diren ekitaldiak primerakoak iruditzen zaizkit.

**2.** Jakina, auzoko txosnak etxe ondoan izan nituen baina ohean nengoela ez nuen zaratarik somatu .

**MARIA BLANCA GARCIA**

**1.** Bai, bai, ondo ikusten ditut. Gakoa hauxe da: leku handiagoa behar dela eta ez Floridako parkea edo oraingo lekua onak ote diren eztabaidatzen ibiltzea.

**2.** Berdin lidake. Jaietan gaude eta bost egun besterik ez dira.

**ALVARO PZ. DE GAUNA**

**1.** Noizbehinka joaten naiz baina beti gustora. Nik uste dut Floridako parkean zeudenean atsegingoak edo bereziak zirela.

**2.** Niri dagokidala, bost ajola, baina ziur nago auzokideen artean arazoak sortuko liratekeela.

**NURIA SUAREZ**

**1.** Ondo iruditzen zait txoznak ipintzea, baina lehengo lekua hobea zen oraingoa baino.

**2.** Astebeterako besterik ez bada, ondo ikusiko nuke, nonbait ipini behar dituzte, gainera.



# Aldapako txantxikuak

**URRUTIKO** intxaurrak beti ederrago..., bai eta zuhaitzak, piztiak eta zomorroak ere. Noiz ikusi duzu azken aldiz asto bat, igel bat, sugandila bat? Hori bai, ia buruz dakizu Hegoamerikako tarantularen ugalketa sasoia zein garaitan den eta mamba beldurgarriak zein trikimailu erabiltzen dituen bere harrapakinak engainatzeko. Orduak pasako ditugu iladan xomorro exotikoak kaxa batean ikusten eta gero, etxerako bidean, erreparatu ere ez diegu egingo inguruan, bizi-bizi, ditugun animaliatxoei.

Natura boborka ari baita Gasteizen txoko askotan. Esaterako, Florida parkean eta Aldapa eta Postetxearen arteko lorategian. Izan ere, hortxe bizi dira gasteiztar txantxiku koadrila builoso bakarrak. Bertako ur-putzu sakonetan plisti-plasta, ondoko Legebiltzarreko saltsa-maltsa guztiez axolagabe edo karga-karga eginda hurbiltzen zaizkien parrandazaleei muzin eginez.

Horra proposamena: hurrengo batean, gauez, mozkorrak, oroiminak, edo nahiduzunminak jota, leku horietarik pasatzen bazara, saia zaitez txantxikuen kantua entzuten; txistu leun goxo baten modukoa da, tantakakoa. Alytes obstetricans duzu (to!)... Poetak esaten duen bezala, ilargiarekin maitasuna egiten (edo akaso ez zuen hori esan?).

***Martin Rezola***

Moskeritoen AMES-GAIZTOA



Bagare
EUSKAL ETXEA TOKIA
Kutxileria, 62 - 01001 Gasteiz
945 - 25 10 84



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Vital Kutxa udalagun

## kirol-abentura ekintza nautikoak

Abuztuan eta irailean zure aisialdiari berebiziko bizitasuna emateko aukera izango duzu, horretarako Vital Kutxak erraztasun guztiak zure esku jarriko ditu eta. Oraingo honetan, bi motatako ekitaldiak eskaintzen dizkizugu: abentura kutsukoak eta ekintza nautikoak, zein baino zein erakargarriagoa eta gozagarriagoa. Erne, bada, segidako datuei eta etorri lehen bait lehen Vital Kutxara izena ematera ekintza edota ikastaro mordo batean.

**Bai ekintza nautikoetarako bai kirol-abenturetarako, Caja Vital Kutxaren Telecaja Joven txartelaren jabeek %15eko deskontua izango dute izena emateko orduan. Bestalde, izena emateko eta ekintzei edo ikastaroei buruzko argibide gehiago jasotzeko, Postas Pasabidea-General Alava kaleko Caja Vital Kutxako bulegora jo behar da goizeko 9etatik arratseko 8etara.**

# KIROL-ABENTURA (*)

| | | |
|---|---|---|
| **Espeleologia** | **irailaren 24an** | **3.500 pta** |
| **Hipika** | **abuztuaren 20an eta irailaren 17an** | **5.000 pta** |
| **Rafting-a** | **irailaren 2tik 3ra eta irailaren 23tik 24ra** (biak asteburuak) | **9.000 pta** |
| **Haitzarteen jaitsiera** | **irailaren 30ean** | **3.500 pta** |
| **Puenting-a** | **irailaren 10an** | **3.000 pta** |
| **Urlasterretako piraguismoa** | **irailaren 16tik 17ra** (asteburua) | **9.000 pta** |
| **Hidrospeed eta rafting-a** | **abuztuaren 26tik 27ra** | **9.000 pta** |

(*)
**PARTE HARTZAILEAK:** 15 urtetik 45 urtera bitartekoak. 15 urtetik beherakoek gurasoen baimena beharko dute.
**IZENA EMAN:** ekintzak asteburuetan egingo direla kontutan izanda, aurretiaz eman behar da izena, aurreko astelehenetik aurrera, hain zuzen

# EKINTZA NAUTIKOAK (1)

| IKASTAROA | LEKUA | ORDUAK | ADINA | kuota |
|---|---|---|---|---|
| **Piraguismoa** | **C.N.V.** | 16:00tik 18:00ra edo 18:00tik 20:00ra | **11 urtetik gorakoak** | 5.500 pta |
| **Piraguismoa (2)** | **Legutiano** | 16:00tik 18:00ra edo 18:00tik 20:00ra | **15 urtetik gorakoak** | 5.500 pta |
| **Bela-kirolaren hastapenak** | **C.N.V.** | 16:00tik 18:00ra edo 18:00tik 20:00ra | **15 urtetik gorakoak** | 3.500 pta |
| **Bela-kirolaren hastapenak** | **C.N.A.** | 16:00tik 18:00ra edo 18:00tik 20:00ra | **15 urtetik gorakoak** | 3.500 pta |
| **T.D.V.** | **C.N.V.** | 15:30tik 17:00ra edo 17:00tik 18:30ra edo 18:00tik 20:00ra | **11 urtetik gorakoak** | 8.000 pta |
| **T.D.V.** | **C.N.A.** | 15:30tik 17:00ra edo 17:00tik 18:30ra edo 18:00tik 20:00ra | **15 urtetik gorakoak** | 8.000 pta |
| **Optimist-a** | **C.N.V.** | 16:00tik 19:00ra | **7 urtetik 14ra** | 8.000 pta |
| **Optimist-a** | **C.N.A.** | 16:00tik 19:00ra | **7 urtetik 14ra** | 8.000 pta |
| **Ur-skia** | **C.N.V.** | 16:00tik 18:30ra | **10 urtetik gorakoak** | 6.000 pta |
| **Ur-skia** | **C.N.A.** | 16:00tik 18:30ra | **10 urtetik gorakoak** | 8.500 pta |

(1) NOIZ: Ikastarook abuztuan eta irailaren lehenengo astean egingo dira. Hauen iraupena astebetekoa izango da. astelehenik ostiralera arte

SALBUESPENAK: (2) markatutako ikastaroak abuztuaren 21etik 25era eta abuztuaren 28tik irailaren 1era baino ez dira burutuko

Abuztuaren 7tik 11ra ez da inolako ikastarorik izango.



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa



# Bertso Berriak Gasteizi jarriak

**Doinua: Iparragirre dela eta**

**Bertso sorta hau Jon eta Aitor Sarasua anaiek Villa Suso jauregian kantatu zuten aurtengo apirilean "Fauna txiki bat bertso berritan" izeneko emanaldian azken agur gisa, Gasteizko Bertso Eskolak antolatutako Bertso Astearen barruan. Bertsootan isladatzen da bertsolari paregabe hauek Gasteizi eta gasteiztarroi buruz duten ikuspegia. Hori dela eta, ekarri ditugu orrialdeotara.**

Gasteiz aldera iritsi denez
animalien itzala
agurrerako hiri hau hartu
nahi dugu musa bezala
Arabako bihotza
nahiz izan hiri hotza
Ardantzaren kapitala
moskito eta kaparrentzako
bizitoki ideala.

Duela gutxi txikia zenak
hazkuntza geldian dirau
zentzu batean harritu nau
ez poliki ez azkar
beti patxada dakar
lasai-lasai egun ta gau
kuerdarekin funtzionatzen duen
hiri bakarra dugu hau.

Gasteiz beti zait oso nahasketa
berezia iruditu
gallego harro, arabar peto
ta bizkaitar txilibitu
Jarraiko lau mutiko
UAko fanatiko
eta txarrena aditu
denak zerbaitek bildu behar ta
Taugresek elkartzen ditu.

Hemen gabiltza Vitoriaren
biktoriak zirikatzen
baina eztakit gaur hemen zenbat
diren gasteiztar sentitzen
asko daude begira ta inibitzen
dira
estudianteak hain zuzen
amak ordaintzen dien artean
bizi baitira Gasteizen.

Noizbait gasteiztar izango al dira
nik esango nuke baietz
naiz ikasleek etorkizuna
ikusten duten nahiko beltz
etxetik irtetzean
Gasteiz aukeratzean
ez dira ibili trakets
barru-barruan denek baitute
kapar bihurtzea amets.

Arrazoiren bat ote du UAk
euskaldunez dioenak
denak direla funtzionariak
edo izan nahi dutenak...
euskaraz bizitzeak
sortzen ditu trantzeak
bere pozak bere penak
helburu zailak izaten dira
erronkarik politenak.
Euskaltzaleak beti baitira
erronka txikiez jantzi
guk ere gure fauna txikia
nahi izan dugu idatzi
horixe da bertsoa
autoterapiatxoa
kantatu eta ahantzi
Gasteiz aldeko euskaltzaleei
miresmen eta goraintzi.

*Jon eta Aitor Sarasua*




MODA-MODAN

Zatoz berehala MULTIOPTICASera eta jar zaitez moda-modan MULTISOLekin. Proba itzazu bere diseinu berritzaileak!
Harritu zaitez ispiluzko eusturez eta liluratu prezioarekin: 1.950 pezetan dituzu.
Eta guztiak kalitate optiko kristalekin, Jakina. Zer deritzozu? Jantz itzazu MULTISOL batzuk.
Moda-Modan egongo zara.

ETA NAHI BADUZU, GRADUATU EGINGO DIZKIZUGU

MULTISOL

1.950 PEZETAN ZER DERITZOZU?

Zatoz eta proba itzazu MULTISOLak

MENDIAOPTIKA
DESDE 1856 AZ GERO
MULTIOPTICAS

Andre Maria Plaza • Olagibel, 33 (anbulategi aurrean)
VITORIA-GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Apotheke taldearekin... botika ona!




**Norbaitek alemaniera pittin bat badaki "apotheke" hitzaren esanahiari berehala antzemango dio; "botika" dugu euskarazko baliokidea. Botika ederra ekarriko digute, bada, Gasteizko gazte hauek jaietako musika-ekitaldi bat sendabidetzat harturik. Izan ere, Apotheke taldea dugu gure hiriko jaietako gauak alaituko dizkiguten musika-taldeetariko bat. Gasteizko musika-talde hau lagun talde batek sortu zuen duela hamar urte. Musikaren munduan egin duen ibilia batere samurra izan ez bada ere, Apothekek aurrera jarraitzen du, bidean aurkitu dituzten milaka oztopoak gora-behera. Gasteizko jaietan jotzeak ekarri dien poza ezin izan dute izkutatu gurekin izan duten solasalditxoan; kexurako tarterik ere aurkitu dute, ordea.**

**APOTHEKE TALDEA** orain dela hamar urte sortu zen. Hasiera-hasieratik bost lagunek osatu dute taldea: Toñok, Raulek, Rubenek, Fer-rek eta Josek. Betiko lagunak ditugu eta, musikaren munduan elkarrekin egin duten ibilia gora-behera, adiskidetasun horri eutsi egiten diote. Lagunak izateaz gainera, senitarteak ere badira taldeko partaide batzuk: Toño eta Raul anaiak dira; Ruben eta Fer ere bai.

Hasierako lau urteetan ez zuten Apotheke taldea oso aintzat hartu. Gerora, maketa bat grabatu ondoren, serioago hartzen hasi ziren.

"Hasieran hogei duroko gitarra batekin eta bi makilekin jotzen genuen. Gurasoek 2.000 pta-ko paga ematen zigutenez, ezin genuen besterik erosi". Abestien letrak guztien artean sortzen dituzte baina Jose eta Fer dira horretan denbora gehien ematen dituztenak. Orain arte bi maketa grabatu dituzte; azkena maiatzean kaleratu zuten: "Ar" du izenburua eta sei kanta biltzen ditu.

## Kontzertuak tabernetan

Apotheke taldekoak pozik daude Gasteizko jaietan jo behar dutelako.

**"Apotheke taldeak Juan de Aiala plazan joko du abuztuaren 7an, gaueko 11etan"**

EDAN • JANTEGIA

Oleaga

*Abuztuaren 15a arte irekita*
*Barra goizeko 7etatik aurrera*
*Karta betiko eta oraingo platerekin*
*Eguneroko Menua: 1000 pzt*
*Betiko kazuelatxoak*

ADRIANO VI, 15 • TFNOA: 24 68 53 - 22 33 10 • GASTEIZ

BITORIANO
ZUIA • ARABA
TEL. 43 00 73



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




Hala ere, kexu ere azaldu zaizkigu, dena ez delakoan urre kolorekoa. "Taldearentzako aukera ona da Gasteizko jaietan jotzea, baina jo behar dugun lekua erdialdetik dexente aldenduta dago. Hortik oso jende gutxi ibiltzen da. Hemengo taldeok martxa dagoen lekutik urrun xamar eramaten gaituzte beti".

Orain arte, kontzertu gehienak tabernetan eman dituzte; maiatzean grabatutako maketa ere taberna batean aurkeztu zuten. Hala ere, ondorengo kontzertuak Palentziako herrixka batetan, Tudelan... emango dituzte. Apotheke taldeak ez dauka ordezkaria. Beraz, aukera gutxi izaten dute kontzerturik emateko.

Bestalde, taldeko partaideek badute beren lana, musikari eskaintzen ez dizkioten tarteetan ez aspertzeko. "Musikatik bizi nahi genuke baina oso gaizki dago musikaren mundua. Taldean jo beste lanik egingo ez bagenu, ez genuke irabaziko bizibidea aurrera ateratzeko adina".

**"Hemengo musikari onek alde egiten dute Gasteiztik talde batean edo bestean sartzeko, aurrera egingo badute"**

## Euskaraz zergatik ez

Apotheke taldeak erdaraz jotzen du. Euskaraz ez jotzearen arrazoia galdetu diegu, hona erantzuna: "Aukera hori ez dugu baztertzen baina, gure ustez, hizkuntza batean kantatzeko, hizkuntza hori ondo menperatu behar da". Eta letrak beste norbaitek egiteari muzin egiten diote "horrela, taldearen nortasunaren zati bat galtzen delako". Hala ere, euskara ikasten ari direla aitortu digute.

Musikaren munduari buruz hitz egin digute, polita bezain gogorra omen da. "Instituzioek, gainera, oso erraztasun gutxi ematen dituzte". Beren hitzetan, "oso zaila da musika-talde bat aurrera ateratzea, legeak ere gero eta gogorragoak direlako zarata arautzeko darabilzkiten irizpideetan". Beraz, ezin da edozein lekutan jo. Apotheke-koek esan digutenez, behin baino gehiagotan agertu da polizia eta jende guztia kalera bidali du, berak taberna batean jotzen ari zirela. Bestalde, ezin diote eskaini musikari nahi luketen denbora guztia, taldeko bakoitzak beste eginkizun batzuk dituelako. Normalean, asteburuetan baino ez dira biltzen entsaiatzeko, herri batean bildu ere, Gamizen.

## Erreztasunik ez

Hitz goxoak alde batera utzirik, kritikak egiteko unea ere iritsi da. "Txosnetakoek hobeto antolatzen dituzte hemengo taldeen ekitaldiak udaletxekoek baino". Izan ere, Apotheke taldeak Juan de Aiala plazan joko du eta horrela "oso zaila da jendea txosnetatik edo alde zaharretik mugitzea plaza hartara hurbiltzeko". Apotheke taldekoek ez dute ukatzen jaietan jotzea esperientzia ona dela, "baina udalak ez du ezertxo ere egiten Gasteizko taldeak aurrera ateratzeko". Gasteizen talde on asko omen daude, oraindik oso ospetsuak ez badira ere. Hori dela eta, "hemengo musikari onek alde egiten dute Gasteiztik talde batean edo bestean sartzeko, aurrera egingo badute". Erraztasun gutxi, beraz. "Lehen gutxienez kontzertuak egiten ziren, orain hori ere ez. Ondo dago zarataren legeria baina beste bide batzuk jarri beharko lirateke. Arazoa udalaren eskuetan dago'.

Bukatzeko, Apotheke taldekoei eman diegu hitza: "Beraz, badakizue, GEU GASTEIZ aldizkariko irakurleok, gonbidatuta zaudete une goxo eta alai bat pasatzera Apotheke taldearekin". Kontzertua Juan de Aiala plazan izango da, abuztuaren 7an, gaueko 11etan.

*Susana Calleja*
*& Itziar Mtz. de Santos*

Quetzal
HegoAmerikako jantzirik ederrenak
PINTORERIA kalea • S. Franciscoaren kantoiaren ertzean Tfnoa: 25 03 52

iRUSTA TABERNA
poteo eta pintxoak
ESPEZIALITATEA:
Patata tortila • Otartekoak
Mateo Moraza 19
Tfnoa: 23 19 33
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Dantzarik egin nahi indarrarekin?



**musika eta dantzak ezinbestekoak dira Euskal Herriko edozein festatan. Betidanik euskaldunok dantza egin dugu txistuen, alboken eta gainerako euskal musika-tresnen doinuan. Gasteizko jaietan ere ez gara etxezuloan geratuko eta denok elkarrekin dantzatuko dugu plazan. Ez dakizula dantzan? Ikasi nahi al duzu? Begiratu eskenatokira, hortxe dira-eta Indarra taldekoak.**

**GEU GASTEIZekoek** ez genuen zalantzarik izan. Gasteizko jaietako alean euskal dantzei eta musika tresnei buruz hitz egin behar genuen. Horretarako bidea bakarra zen, Alde Zaharrera doana, hain zuzen, hantxe baitago Indarra Euskal Kultur Elkartea.

Indarra elkartea orain dela 22 urte sortu zen. Geroztik ehundaka gasteiztarrek ikasi dituzte gure herriko dantzak Indarrakoei esker. Halere, elkarte horretan dantzan ez ezik euskal musika-tresnak jotzen ere badakite, besteak beste, gaita, txistua, txirula, alboka, txalaparta eta trikitixa. Hori gutxi balitz, 1978an Gasteizko lehenengo txaranga osatu zuten, txaranga benetan berezia, bidenabar esanda, partaide guztiak musutruk aritzen baitira, han-hemenka, Euskal Herriko bazter guztiak alaitzen. Zertxobait gehiago ere aipatu behar dugu fanfarreaz: Urrezko Zeledon izeneko saria jaso zuela.

## Ohiturei eutsi

Indarra elkarteari buruz hitz egiteko zein egokiagoa Jon Fernandez Perez de Mendiguren baino. Jon dugu Indarra Euskal Kultur Elkarteko presidentea, eta berak azaldu digu beren helburua: "Guk euskal folklorea, eta bereziki arabarra, jaso eta zabaldu nahi dugu munduan

ARTE GALERIA
LOURDES UGARABE
Los Arquillos kalea,7
Tfnoa:(945)146261 • Fax:(945)143509
01001 GASTEIZ

Ederki
argazki estudioa
ZURE ARGAZKIAK ORDU BETEAN
*Erreportaiak: ezteiak, komunioak, bataioak*
*Estudioko argazkiak*
*Bideo industriala*
Olagibel, 64 • Telefonoa: 27 50 85

AMILAMIA
*arropa eta osagarriak*

PINTORERIA, 17
tfnoa: 27 40 09
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**"Euskal folklorea, eta bereziki arabarra, jaso eta munduan zehar zabaltzeko lanean ari da Indarra elkartea"**

zehar". Helburu hori gogoan eta bihotzean dutela, Indarrakoak lan eta lan, jo eta ke, ibili dira azken urteotan: asteko lau egunetan dantza eskolak; asteburuetan, berriz, Euskal Herriko eskenatokietara.

Horrekin batera, euskal ohiturak berreskuratzeko egiten duten lana ere aipagarria da. Esaterako, "Larrain dantza" eta "Gasteizko zortzikoa" izeneko dantzak erabat ahazturik genituen, baina dantzazale hauei esker, berriz ere gure artean dira ikusgai eta gozagai. Jon Fernandezen ustez, "gure historiaren une jakin batean apurtu zen herriaren eta dantzaren arteko lotura. Gainera, ez dakit zergatik. Dantza egitea funtsezkoa izan da Euskal Herrian betidanik. Horra adibide bat: aspaldi, soka dantzan ari zirela, esaterako, neska-mutilek keinu bat egiten zioten elkarri, gerora elkarrekin egoteko".

**"Indarra elkarteari esker "larrain dantza" eta "Gasteizko zortzikoa" izeneko dantzak berreskuratu ditugu"**

## Aurten ere Gasteizko jaietan

Urte luzeak igaro dira Indarrakoen doinuak Gasteizko jaiak alaitzen hasi zirela. Andre Mari Zuriko jaien durundarekin batera, Indarrako lagunak han-hemen somatzen ditugu urtero, zein baino zein alaiago, dantzan edota euskal musika-tresnei eragiten, Arabako musika-sustraiak beti gogoan dituztela. Aurten ere gure artean izango dira Matxete plazan "Gasteizko zortzikoa" eta "Larrain dantza" hankei itsatsirik edota Andre Mari Zuriaren aurrean aurreskua dantzatzen. Gehienok jaietan gauden bitartean, haiek lanean, baina, hori bai, pozik eta atseginez, gure kultur ondareari eusteko lanean dihardutela jakinda, neke guztiak pozarren hartzen baitituzte.

*Ismael Diaz de Mendibil*



GORETTI
ILEAPAINDEGIA
San Antonio, 29-Behea
Tfno: 13 18 55
01005 - GASTEIZ

JATETXEA
HIRUAK
Kutxilleria, 26 tfnoa: 28 81 47
•GASTEIZ

Umeak zaintzen ditugu
kangeroak geu

GOIZEZ
Beatriz 22 61 18
Iholdi 14 45 91
Nekane 26 91 53
Eduardo 14 21 99
Leire 27 32 81
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Naiara 24 04 42
Leizuri 25 53 10

ARRATSALDEZ
Oihana 25 30 35
Imma 24 22 41
Rafa 25 22 68
Iratxe 24 51 81
Lorena 27 10 13
Patrizia 27 78 19
Iratxe 24 51 81
Ainara 23 38 28

GAUEZ
Esther 27 84 57
Imma 24 22 41
Iholdi 14 45 91
Idoia 24 47 79
Lorena 27 10 13
Ainara 23 38 28
Txaro 28 08 85

ASTEBURUAN
Olatz 25 61 20
Jose Angel 27 62 41
Saida 26 58 05
Idoia 24 47 79
Belen 13 65 10



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

## «HIRUGARREN DISKOA EZBERDINA IZANGO DA»

# Sorotan Bele taldeak bisita egingo digu jaietan



**Sorotan Bele, Hondarribiako taldea, oso gogor hasi zen musikaren munduan: Euskadi Gazteak antolaturiko II. maketa irabazi bezain laster mahai gainean zuten kontratua hondarribitarrek, izenpetzeko prest. Berehala kaleratu zuten "Sorotan Bele" izeneko estraineko diskoa. Sekulako arrakasta, Euskal Herriko bazter guztietara iritsi ziren kantak. Iazko udazkenean bigarrena,"Mundu hegian", lehenengo diskoaren ezaugarriei eta arrakastari eusten diena. Bestalde, Mikel Errazkin taldekideak badu bere lehenbiziko bakarkako lana dendetan. Gureari lotuz, laster izango ditugu taldekide guztiok gure hiriko jaiak alaitzen. Mikelekin hitz egin dugu Gasteizeratu aurretik.**

***Zuen lehenengo diskoa sospresa handia izan zen guztiontzat. Primeran saldu zenuten, izan ere, diskorik arrakastatsuenetarikoa izan zen Euskal Herriko musikaren historian. Bigarrenarekin, "Mundu hegian" izenekoarekin, gauza bera gertatzen ari al da?***

Beno, bigarrena ez lehenengoa bezalakoa, baina ale dexente saldu ditugu eta puntakoen artean segitzen dugu. Aurrenekoa pasada bat izan zen: tabernetan eta leku guztietan entzuten zen. Bigarren hau helduagoa da, landuagoa. Lehenengoa sortu genuenean, Elkar argitaletxea etorri zitzaigun diskoaren grabazioa eskainiz eta noiz izango genuen prest galdetuz. Ordurako abesti guztiak prestaturik genituenez, estudioan sartu eta berehala grabatu genuen lehendabiziko disko hura.

***Freskoagoa zen lehendabiziko lan hura?***

Bai, lehenengoa freskoagoa, bigarrena helduagoa.

***Zuen ikusle eta jarraitzaileei dagokienez, zuen kontzertuetan nahaste handia ikusten da, alegia, era eta adin guztietako entzuleak izaten dira.***

Bai, gure publikoa bitxia da. Esaterako, Sutagar edo E.H. Sukarra gustoko dutenak ere gure musika-ekitaldietara joaten dira. Umeak, haien gurasoak. Denetarik.

***Zergatik gertatzen da, zure ustez, nahasketa hori?***

Lehenengo diskoa leku guztietan entzun zen eta jendeak oraindik gogoratzen ditu kantak. Gainera, bigarrena lehenengoaren jarraipena denez, jendeari gustatu zaio eta








Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

dagoeneko animatzen dira gure kontzertuetara etortzen.

***Zeuk esan duzun bezala, ia guztiok dakizkigu buruz estraineko diskoaren abestiak, baina bigarrenekoak...***
Beno, nik esango nuke ez dagoela alde handirik bata eta bestearen artean. Oraingoan, batez ere gazteek dakizkite kanta berriak, abesti guztiak ezagutzen dituzte.

***Eta abuztuan Gasteizen, nola dator uda, galtzak bete kontzertu?***
Ez, gaizki dator.

***Iazkoarekin konparatuz...***
Desastre. Udan, ekaina ere kontuan hartuz, bederatzi, hamar kontzertu, besterik ez.

***Zer gertatzen da ba? Non dago arazoa? Disko berria ez al da ondo saltzen?***
Batetik, krisialdia, bestetik, hauteskundeak, udaletako aldaketak. Hori guztia asko nabaritzen da.

***Ba al dago Euskal Herritik kanpo jotzeko aukerarik?***
Elkar-rek argitaratu duen euskal kanten bilduma bati esker, promozio- edo aurkezpen-kontzertu bat izango dugu Madrilen. Hori urrian izango da, Tapia eta Oskorrirekin batera. Egun horietxetan beste kontzertu bat izango dugu Parisen, Euskal Etxean, hain zuzen ere. Dena den, Euskal Herritik kanpo jotzea oso zaila dugu.

***Azken hilabeteotan zure lehenengo bakarkako lana kaleratu da.***
Bai, baina ez du zerikusirik Sorotan Bele taldeak egiten duenarekin. Lan berri honetan hainbat motatako musika aurkitu dezakezue: New Age, Afrikako doinuak, folk zeltiarra. Musika tresnak ere ez dira ohizkoak, lan honetan perkusio afrikarrak, txikia, txirula, gaitak eta sintetizadoreak nagusi dira eta.

***Nortzuk izan dituzu lagun musika tresna horiek jotzen? Sorotan Bele taldeko norbait, beharbada?***
Bai, beste batzuen artean. Perkusioan Luis Caminok ihardun du, 21 Japonesas taldekoak, hain zuzen. Baxuan Ritxi ibili da, Sorotan Bele taldekoa. Kitarran beste bat Sorotan Belekoa, Urbil. Pianoa Aitor Amezagak jo du, txikia Iker Goenagak, gure lehenengo diskoan laguntzaile izan genuenak. Abotsa Ana Irazuk, 21 Japonesas taldekoak, jarri du. Gaitarekin nahiz txirularekin Alan Greefen aritu da, Txomin Artolarekin ibilitakoa.




***Sorotan Bele taldearen kanta gehienen egilea zeu zarela kontuan hartuz, eta zure bakarkako lanarekin hain pozik zaudenez, pentsa liteke taldeak ez duela asko iraungo.***
Ez, inola ere ez, nik proiektu batzuk ditut baina Sorotan Bele hor dago.

***Orduan, nork dauka lehentasuna Mikel Errazkinek ala Sorotan Belek?***
Sorotan Belek, jakina.

***Eta zure lana, "Bostak arte" izenburukoa, zuzenean defendatzeko paradarik izan al duzu?***
Bai, aurkezpena Azkoitian egin nuen; diskoa nirekin grabatu zuten guztiak izan ziren bertan. Baina, zaila da disko honetako kantak zuzenean jotzea, ordenagailu eta teklatu gehiegi du eta. Udazkenean Donostian izango gara.

***Sorotan Beleko beste inork aparteko planik al du?***
Bai, Ritxi sei taldetan dago sartuta: Sorotan Bele, Orgasmic Thoospicks, Zaldi Bobo, Sirope Sound Sistem... eta abar. Guztiez ez naiz oroitzen.

***Sorotan Bele taldeak bi disko baino ez ditu grabatu estudioan. Halere, Euskaldunon Egunkariak kaleratu duen musika-bilduman zuen zuzeneko bi kanta agertzen dira.***
Egunkariaren kontu horretan zerbait berezia egin nahi genuen, eta horregatik erabaki genuen zuzenean grabaturiko bi kanta sartzea. Kanta horiek ez zuten zertan ospetsuak izan, ez. Donostiako Victoria Eugenia antzokian egindako kontzertu batetik atera genituen. Soinua Jean Phocas-ek, Elkar argitaletxekoak, grabatu zuen eta guk onartu genuen Egunkariari bi abesti ematea.

***Eta hemendik aurrera, zer?***
Orain abesti berriak prestatzen ari gara, gogotik entsaiatzen, gogor ari gara. Hirugarren diskoa desberdina izan dadin nahi dugu, txirula protagonista izan gabe. Hurrengo udaberrian kalean izango delakoan gaude. Hala ere, gure erritmoan egingo dugu lana, presarik gabe.

*Joxemari-Txabi Arnal Gil*



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Josu Alava: «blusok jaien egitarauan parte hartu nahi dugu»




**Gasteizko jaiak eta blusak banandu ezin diren osagaiak dira. Eta Andre Mari Zuriaren jaiei nortasun berezia ematen dien zerbait aipatuz gero, zalantzarik gabe, blusak aipatu behar dira. Aurten, gainera, Blusen Egunak 50. urteurrena bete du eta urtemuga hori ospatzeko liburu bat kaleratzekotan dira, Gasteizko koadrila ospetsu horien historia azaltzeko. Liburuaren zain egon ordez, argazki-kamera eta grabagailua hartuta, Florida pasealekurantz abiatu gara GEU GASTEIZkook, blusek hor baitute beren egoitza. Bertan, Josu Alava eta Enrike Zendoia blusen elkarteko presidente eta presidenteordearekin izan gara hizketan.**

**JAIAK HURBILDU** ahala antolaketa lanak eta bilerak ugaritu egiten zaizkie. Hala ere, tarte bat egin digute patxadaz hitzegiteko. Blusen presidente izateak dakartzan betebeharrak azaldu dizkigu Josu Alavak. "Blusen elkarteak antolatzen dituen ekintza guztien koordinazioaz arduratzea izaten da nire lana. Kontuan izan, gaur egun, 26 koadrila gaudela blusen elkartean, alegia, 1.700 lagun inguru".

Ordatz
itzulpen eta euskara zerbitzuak
Arana, 5 - 1 • Tfnoa: 945-26 44 32 • 01002 - GASTEIZ

ANBOTO
TABERNA - JATETXEA
EGUNEKO MENUA
Kutxilleria, 29 - Tfnoa. 25 00 93 - 01001 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Berek esan digutenez, blusen berri ematen duen lehenengo berri ofiziala 1925ekoa da eta aurten bete ditu 50 urte Blusen Egunak. "Urtemuga hau ospatzeko antolaturiko ekintza ugariez gain, Gasteizko blusen historia azaltzeko liburu bat argitaratuko dugu". Azaroa edo abendurako prest egongo da. "Gure nahia egun hauetarako liburua kalean egotea zen baina ezinezkoa izan da. Hala ere, aurreratu dezakegu liburua urteko libur附rik ezagunena izango dela". Ondoan eserita dagoen Enrike Zendoiak burua gora eta behera mugitzen du Josuk esandakoa baieztatuz. "Bai, egia da. Oso liburu polita eta landua izango da. Egun desagertuta dauden koadriletako ordezkari zaharrekin informazioa biltzen aritu dira eta bitxikeria ugari agertuko dira. Lehenengo blusak sortu zirenetik gaur arte ehundik gora izan dira urteen joan-etorrian jaietan ateratako blusen laguntaldeak. Izango da zeresanik, beraz".

Blusen artean mota guztietako gasteiztarrak aurki daitezke eta ez da beste munduko gauzarik eskatzen blusa izateko. "Blusa izateko ez dugu inolako ikasketa edo titulorik eskatzen" diote irribarrez, "soilik jaietan parte hartzea eta parrandarako gogoa izatea". Dena dela, blusen taldea osatzeko ez da nahikoa lagun batzuk elkartu eta Zeledonen antzera janztearekin."Benetako blusa talde batek bere txaranga eta txistulariak izan behar ditu eta jaietan kalean giroa berotzen lagundu behar du".

Elkartean eskubide osoz onartuak izateko urtebeteko epea ematen zaie berriei. "Talde berriek lehenengo urtean ez dute udalak ematen digun dirulaguntzarik jasotzen. Eskubide hori lortzeko adierazi behar dute urtebetez gutxienez benetako blusa talde bat osatzen dutela".

Dirulaguntzak direla eta, jende askoren iritzia okerra dela azaldu digute. "Batzuek hori pentsatu arren, guk udaletik jasotzen dugun dirua ez da gure bazkari-afariak





**"Elkartearen 50. urtemuga ospatzeko Gasteizko blusen historia azaltzeko liburu bat argitaratuko dugu"**



## ZEINTZUK DIRA BLUSEN ELKARTEKO KOADRILEN IZENAK?

| | |
|---|---|
| Bainas | Luken |
| Basatiak | Martinikos |
| Batasuna | Nekazariak |
| Belakiak | Okerrak |
| Bereziak | Petralak |
| Biznietos | Pozaldi |
| Desiguales | Silenciosos |
| Egokiok | Tropikalak |
| Galtzagorri | Txinpartak |
| Gasteitarrak | Txirrita |
| Gazteluak | Txolintxo |
| Jatorrak | Zintzarri |
| Karraxi | Zoroak |





Bacalao Giraldo

• Eguneko makailu gesaldua • Makailua eramateko prest
• 36 errezeta ezberdin
ERAMAN ETA JAN
"kalitatea eta erosotasuna zure esku"

Angulema, 2 - Tfnoa: 27 23 25 • Basoa, 6 - Tfnoa: 22 16 36 • Gorbea Merkatua - Zaldiaran • GASTEIZ






Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

edota tragoak ordaintzeko erabiltzen. Ezta pentsatu ere!". Garbi azaldu nahi dute diru hori zertan erabiltzen den. "Guk geure txaranga eta txistulariekin giroa jartzen dugu kaleetan eta horren truke udalak diru kopuru jakin bat ematen digu".

Enrikek dioenez, 20 miloi inguru xahutzen dituzte blusa talde guztien artean eta udalak ez die diru kopuru horren erdia ere ematen. "Udalaren laguntzarekin ez gara musikaren aurrekontuaren %50a estaltzera iristen. Bataz beste 20-25 mila pezeta jarri behar izaten ditugu gure poltsikotik taldeko partaide bakoitzak. Beraz, jaietan ateratzea guretzat gastu bat da, batez ere langabetu eta ikasle direnentzat. Merezi du ahalegina egitea jendeak ilusioa duelako eta jaietan ondo pasa nahi duelako".

Diru kontuak alde batera utzi eta neska kontuak hartu ditugu ahotan ditugu jarraian. Eritzi ezberdinak antzeman ditut oraingoan. Ez datoz bat gai horretan gure solaskideak. Enrike, behintzat, neska-mutilez osaturiko laguntaldeen aldekoa da. "Koadrila batzutan badira neskak eta beste batzutan ez. Nire iritziz, emakumezkoen multzoa ez da behar adinakoa gure artean, nahiko genuke neska gehiago egotea koadriletan. Alde horretatik, guk ateak irekiak ditugu etorri nahi duenarentzat, pentsaten baitugu nesken ekarpenak haundiagoa izan beharko lukeela".

Lagunak hitza kendu dio eta bera hasi da hizketan ."Gure taldean ez dago ateratzeko prest dagoen neskarik". Enrikek Josuk esandakoa zuzendu nahian, bat edo beste badagoela adierazi digu. "Historikoki blusen taldea, blusen taldea izan da eta nik, bederen, ez dut nesken aldeko publizitaterik egingo" dio Josuk. Tradizio kontua omen da. "Horrela izan da betidanik. Abuztuaren 5ean andregaia etxean utzi eta 10era arte blusa baino ez zara. Oraindik ere badira ezkonduta egon arren, emaztea herrira bidaltzen duten senarrak jaietan koadrilarekin lasai atera ahal



**"Hogeita sei koadrila gaude blusen elkartean, alegia, 1.700 lagun inguru"**



izateko". Aurrez esandakoak zuritu nahian edo bukaeran zera dio: "Baina ez dago arazorik; atera nahi badute atera daitezela".

Beharbada matxista samarrak direla onartzen dute, baina ez omen da hainbesterako. "Emakume gutxi badago neurri haundi batean beren errua da, ez dutelako behar adina interes agertzen festan parte hartzeko". Puntu horretan biak ados.

Herritarren parte hartzea, oro har, ona iruditzen zaie. "Gasteizen jaia kalean dago. Giro bizia eta berezia sortzen da kaleetan eta gu ere hor izaten gara, noski".

Jaien egitaraua oso-osorik Udaleko Kultura Sailaren bidez egiten da eta Gasteizko talde eta elkarteak kexu dira horretaz. "Ez da logikoa jaietako partaide garrantzitsuak izanik, jaien egitarauan zeresanik ez izatea". Hori konpondu asmoz, udaletxera jo dute baina emaitzarik ez oraingoz. "Txosnen komisiokoekin hitzegin ondoren, udaletxera jo genuen baina ordurako dena eginda zegoen. Gure ideiak azaldu nahi genituzke, bai eta proposamenak egin ere, baina hurrengo urtean izan beharko du".

Amaitzeko, blusak jaietan ezinbesteko ote diren galdetu diegu. Zalantza txiki baten ondoren honako hau Enrikeren erantzuna: "Jaiak egingo lirateke baina ez zen gauza bera izango. Ziur naiz jaien mailak behera egingo lukeela. Beste herrietan egiten diren jaien pareko bihurtuko lirateke. Izan ere, Gasteizen blusen laguntaldeek bihurtzen dituzte jai hauek hain gustoko guztiontzat".

Josuk eta Enrikek mutil zintzo eta apalen itxura erakutsi digute berriketaldi osoan zehar. Baina ez dakit blusen benetako izaera azaldu diguten gaur; behar bada, jaietan ikusiko bagenitu...

***Xabier Zabaleta***

UDABERRIA
elkartea
•Euskaltegi Homologatua
-Helduentzat
-Ume eta gaztetxoentzat
•Musika eskola
•Dantza
Uruguay, 9 •Tfnoa: 24 49 65
Abendaño 48 • Tfnoa: 22 34 33
GASTEIZ

azkarprint
Cercas Bajas, 4
Tel. 27 92 51
ZURE INPRIMATEGIA EUSKARAZ
Kolorezko Fotokopiak ere egiten ditugu
GASTEIZ
INPRIMATEGIA



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

**Zorionak...**
**Zorionak gasteiztar guzti-guztioi!**

**Gasteizko jaiak hastear dira.**

**Hurrengo orrialdeetan aurtengo egitarauaren laburpentxo bat eskaini nahi izan dizuegu.**

**Horrekin batera, hainbat gasteiztar ezagunen iritzia ere jaso dugu.**

**Ondo pasa eta Irailera arte!**

# Gasteiz jaietan



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# abuztuak 4



## ARRATSALDEZ

**6ETAN**

Andre Mari Zuriaren plazan: 95eko jaiei hasiera emango dien suziriaren jaurtiketa eta Zeledonen jaitsiera.

**6.45ETAN**

Udaletxea, Agirre Lehendakaria kalea, Posta kalea eta Andre Mari Zuriaren plaza: Udal segizioa, erraldoi eta buruhandien konpartsarekin. Udal musika banda eta gaitajole bandak: Indarra, Erletxo, Eltziego, Goizerdi eta Biasteri.
Bezperak, San Migel parrokian.
Andre Mari Zuriari loreak eskaintzea eta Salbea.

**7.30ETAN**

Machete plazan:
Indarra dantza taldea.

▶ **ZELEDONEN JAITSIERA**

▶ **ANDONI EGAÑA ETA BERE TALDEA**

**9ETAN**

Machete plazan:
Dantza: larraindantza eta txulalai.

## GAUEZ

**10ETAN**

Erdialdeko kaleetan:
Farolen prozesioa.

**11ETAN**

Florida parkean:
Gau-jaia: Dantza Alai.
Juan de Ayala plazan:
Pop-rocka: Nuevas Tendencias eta Revelación.

**11.30ETAN**

Arkako plazan:
Gau-jaia: Titanes Show.
Machete plazan:
Kantaldia: Andoni Egaña eta bere taldea.
Olagibel kalean:
4 zezensuzko eta musika-giroa: Biasteri eta Lantziegoko txarangak eta Gasteiz eta Ikuska fanfarreak.

**12ETAN**

Foruen plazan:
Kontzertua: La Guardia.
Geltokiaren plazan:
Rancherak: Francisco Rivelles y su mariachi Alegría Ranchera.

**12.30ETAN**

Espainia plazan:
Magnum & Brosed orkestra.

**11ETATIK GOIZEKO 3ETARA**

Musika kaleetan: Gasteiz eta Ikuska fanfarreak eta Lantziego eta Biasteriko bandak. San Frantzizko aldapa, Posta kalea, Andre Mari Zuriaren plaza, Mateo Moraza, Agirre Lehendakaria, San Prudentzio, San Antonio, Foruak, Independentzia eta Dato kaleetan barrena.



### TXOTXE LPZ. DE ABERASTURI

**Estadio-ko zuzendaria**

«Ez dut batere gogoko jendetza biltzen den lekuetara joatea eta, beraz, txupinazoa telebistaz ikusiko dut. Gauean, giroa ikustera irtengo naiz eta, agian, antzerkira ere joango naiz."

"Egia esan, jaiak aski lasai bizi izaten ditut. Gasteizen egonez gero, lanean jarraitzen dut. Dena den, egun berezietan lagunekin solas egitea gustatzen zait, hitz eta pitz egitea, mundua konpondu nahirik. Pilotazale handia naizenez, egun horiek aprobetxatzen ditut frontoira joateko, ez baita partidu onik falta izaten.»



IRUÑA TABERNA
HAMARRETAKOAK
KUTXI, 63 • Tfnoa: 26 58 52
GASTEIZ

axular
LIBURUDENDA
Arka kalea, 11 - 01005 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# abuztuak 5

## GOIZEZ

**7ETAN**

Erdi Aroko hirigunean eta Andre Mari Zuriaren plazan: Egunsentiko errosarioa eta prozesioa.

**10ETAN**

Mendizorrotzako aparkalekuan: XL. Andre Mari Zuria saria - Sociedad Ciclista Vitoriana.

**10ETATIK 14ETARA**

Foruen plazako pilotalekuan: Esku-pilota: txapelketa eta erakustaldia.

**11ETATIK 15ETARA**

Foruen plazako bolatokian: Bolo-jokoa: Andre Mari Zuria saria.

## EGUERDIAN

**12ETAN**

Andre Mari Zuriaren plaza, Zapatería, Arriagako Atea, Ahate-iturri, Jesusen Zerbitzarien kalea, Diputazio kalea eta Espainia plaza: Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
Diputazio kalean: Gargantua.
Arkako plazan: Pailazoak: Xilipurdi.
Foruen plazan: Herri-kirolak.
Erdialdean: Trikitixa kalejira: Arabako Trikitixa Elkartea.

**12.45ETAN**

Machete plazan: Musika-giroa: Arabako Trikitixa Elkartea.

**1.30ETAN**

Machete plazan: Bertsolariak: Iratxe Ibarra, Leire Bilbao, Oihane Perea.

## ARRATSALDEZ

**4.45ETAN**

zezen plazara

**5.30ETAN**

Andre Mari Zuriaren plazan: Haurrentzako animazioa: Katakrak Trump taldea.

**6ETAN**

Zezen plazan: Abonuko lehenengo zezenketa. Badajozko Alcurrucen abeletxeko zezenak, Ortega Cano, Julio Aparicio eta Vicente Barrera zezen-hiltzaileentzat.

**7ETAN**

Amárica plazan: Jazza: Carlos Gracia Cuarteto.

**7.30ETAN**

Machete plazan: Gasteizko III. Fandango eta Arin-arin Txapelketa

**8.30ETAN**

Zezenetatik itzultzea.

**9ETAN**

Machete plazan: Dantza: larraindantza eta txulalai.

## GAUEZ

**11ETAN**

Juan de Ayala plazan: Pop-rocka: Sagu Rockers eta Moon Rider
Arriagako San Juan parkean: 1. su artifizialak, Valentziako A. Caballer pirotekniaren eskutik.
Floridako parkean: Gau-jaia: Moby Dick.

**11.30ETAN**

Machete plazan: Kantaldia: Anje Duhalde.
Olagibel kalean: 4 zezensuzko eta musika-giroa: Gasteiz eta Ikuska fanfarreak.
Arkako plazan: Gau-jaia: Ciclón orkestra.

**12ETAN**

Foruen plazan: Kontzertua: Kiko Veneno.

**12.30ETAN**

Plaza berrian: Nueva Etapa orkestra.

**ANJE DUHALDE**
**KIKO VENENO**
**IRATXE IBARRA, LEIRE BILBAO ETA OIANE PEREA**








## TXUSTA

**Tabernaria**

«Azken urteetan bezala, aurten ere abuztuaren 5ean taberna itxiko dugu eta EGUNKARIAri utziko diogu jaietarako. Jadanik 52 urte ditut eta lasaitasunez hartzen ditut jaiak. Andre Mari Zuriaren egunean hemen izango naiz eta astelehenean oporretara joango gara. Abuztuaren 5ean, goizean prozesiora eta eguerdialdera Matxete plazara joango naiz bertsolariak entzutera. Arratsaldean zezenetarako blusen sarrera eta afal ostean gustokoa dut lasai-lasai terraza batean kafea hartzea. Etxerako bidean, txosnetan bueltatxo bat egin ohi dut lotara joan aurretik.»

*Xabier* **taberna**
musika ona eta giro ezinhobea
Kutxileria 23

ditare
UME ETA EMAKUMEEN LENTZERIA
Cruz Blanca, 13 • GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

abuztuak 6

## GOIZEZ

**10ETAN**

Plaza berrian:
Dianak. Udal musika banda, udal txistulari banda, Aldundiko txistulari banda, Biasteri eta Lantziegoko bandak eta gaitajole bandak: Indarra, Erletxo, Eltziego, Goizerdi eta Biasteri.

**10ETATIK 14ETARA**

Foruen plazako pilotalekuan:
Esku-pilota: Andre Mari Zuria saria.

**11ETAN**

Zezen plazan: Zekorrak.

**11ETATIK 15ETARA**

Foruen plazako bolatokian:
Bolo-jokoa: Andre Mari Zuria saria.

**11.30ETATIK 14.30ETARA**

Plaza berrian:

▶ **TAHURES ZURDOS**
▶ **JOSELU ANAIAK**
▶ **SOROTAN BELE**

I. Fanfarre Lehiaketa.

## EGUERDIAN

**12ETAN**

Foruen plazan: Herri-kirolak.
Diputazio kalean: Gargantua.
Erdialdean: Trikitixa kalejira: Legutianoko Trikitixa Eskola.

**12.30ETAN**

Floridako parkeko kioskoan:
Kontzertua: udal musika banda.

**ORDU BATEAN**

Amárica plazan:
Txotxongiloak: Pan y Chocolate.

**1.30ETAN**

Machete plazan:
Bertsolariak: Andoni Egaña, Sebastián Lizaso eta Jon Sarasua.

## ARRATSALDEZ

**4.45ETAN**

Zezenetara joatea.

**5.30ETAN**

Andre Mari Zuriaren plazan:
Haurrentzako animazioa: Goloka taldea.

**6ETAN**

Zezen plazan: Abonuko bigarren zezenketa. Salamancako Salustiano Galacheren abeletxeko zezenak, José Ignacio Ramos, Vicente Ruiz "El Soro" eta Sergio Sánchez zezen-hiltzaileentzat.
Vicente Goikoetxea kalean:
Nafarroako jotak: Julián Gayarre Jota Eskola.

**6ETATIK 8ETARA**

Diputazio kalean: Gargantua.

**6.30ETAN**

Floridako parkeko kioskoan:
Haurrentzako dantzaldia: Disco Ling Móvil Karaoke "El Tigre".

**7ETAN**

Amárica plazan: Jazza: Manteca.

**7.30ETAN**

Machete plazan:
Gasteizko I. Trikitixa Txapelketa

**9ETAN**

Machete plazan:
Dantza: larraindantza eta txulalai.

## GAUEZ

**11ETAN**

Juan de Ayala plazan:
Pop-rocka: Sin Favor eta Desconocidos.
Floridako parkean:
Gau-jaia: Arizgoiti.
Arriagako San Juan parkean:
2. su artifizialak, Valentziako Turis pirotekniaren eskutik.

**11.30ETAN**

Machete plazan: Kantaldia: Sorotan Bele.

**12ETAN**

Foruen plazan:
Kontzertua: Tahures Zurdos.

**12.30ETAN**

Espainia plazan:
Janio Martí orkestra.

**12.30ETATIK GOIZEKO 3ETARA**

Arkako plazan: Gau-jaia: Joselu Anaiak (Okerrak blusa taldeak antolatua).



### JENNY PRIETO

**Irratiko esataria**

“Gasteizko jaiak gustatzen zaizkit”, esan digu ezeren aurretik. “Abuztuaren 6a hamarretako dianarekin hasiko da niretzat”. Izan ere, jaietan goiz altzatzekoa dugu Jenny. Dultzaineroekin dantza egin eta gero, erraldoiak eta buruhandiak ikustera joango da “beraiekin joan ohi den banda zoragarria delako”. Hamabiak puntu-puntuan Floridako parkerantz joko du Jenny-k Udaleko Musika Bandaren kontzertua ikusteko. Horren ondoren, Matxete plazarantz egingo du, “Egañak, Sarasuak eta Lizasok kantatuko dutenez, bertso-saio hori galtzea delitoa bailitzateke”.




vitrales
MIKEL DELIKA
BEIRATE ESTUDIOA
Txikita kalea, 1
Tf: (945) 14 64 10
GASTEIZ

ELEKTRIZITATEA
GURIA
muntaia elektrikoak
automatismoak
girotzeko musika
eta segurtasuna
Matxaria, 2 7. pabilioia • Tfnoa: 943 70 08 95
Faxa: 943 10 85 47 20600 EIBAR


kafetegia
taberna
ALDAPA
SAN VICENTE
aldapa
GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# abuztuak 7

## GOIZEZ

**11ETAN**

Zezen plazan:
Zekorrak.

**11ETATIK 14ETARA**

Andre Mari Zuriaren plazan: "Zure lehen argazkia dohainik", Berezien eskutik.



### OIHANE PEREA

**Bertsolaria**

Gasteizko jaietan euskal giroa bultzatu behar da, Oihaneren ustez. "Udalak antolatzen dituen ekitaldiak ez zaizkit egokiak iruditzen, gutxi baitira Euskal Herriarekin loturiko ekitaldiak. Gainera, euskal giroko ekitaldiak egiteko lekua eta ordua ez dira batere aproposak. Zezenak kenduko lituzke jaien egitarautik: "Arrazoi moralak alde batera utzirik, zezenketa ez delako herri honetako ohitura". Ekitaldi guztien artean, jakina, bertso-saioak ditu gogokoen bai eta euskal musika-taldeak. "Orokorrean esanda, euskal giroarekin loturiko gauza guztiak atsegin ditut".



**11.30ETAN**

San Migel parrokian:
Blusa txikien ospakizuna, Zeledon Txikirekin, eta lore-eskaintza

## EGUERDIAN

**12ETAN**

Foruen plazan: Herri-kirolak.
Arkako plazan: Pailazoak: Chiquilandia.
San Antonio, Florida, Foruak eta Posta kaleetan eta Plaza Berrian: Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
Erdialdean: Trikitixa kalejira: Amurrioko Trikitixa Eskola.
Diputazio kalean: Gargantua.
Andre Mari Zuriaren irudiaren aurrean: Ohorezko aurreskua, Zeledon Txikik eskainia.

**12.30ETAN**

Floridako parkeko kioskoan: Kontzertua: udal musika banda.
Diputazio plazan:
Kontzertua: Araiako musika banda.

**12.45ETAN**

Machete plazan: Trikitixa kalejira: Amurrioko Trikitixa Eskola.

**ORDU BATEAN**

Plaza Berrian: Suziriaren jaurtiketa eta Zeledon Txikiren jaitsiera, eta musika-giroa, Gasteiz eta Ikuska fanfarreekin.

**1.30ETAN**

Machete plazan:
Bertsolariak: Xabier Amuriza, Jon Lopategi eta Jon Enbeita.
Amárica plazan:
Txotxongiloak: Títeres de Polichinela.
Plaza berria, Andre Mari Zuria, San Antonio, San Prudentzio eta Dato:
Blusa txikien kalejira.

## ARRATSALDEZ

**5.30ETAN**

Andre Mari Zuriaren plazan: Haurrentzako animazioa: Adardunak.

**6ETAN**

Zezen plazan:
Abonuko hirugarren zezenketa. Cernuño de Linares (Jaén) herriko abeletxeko zezenak, Cesar Rincón, Manuel Díaz "El Cordobés" eta Pedrito de Portugal zezen-hiltzaileentzat.
Andre Mari Zuriaren plazatik Mendizabalara: Zirkura joatea, blusa txikientzat; Rioja Alavesa txarangarekin.
Vicente Goikoetxea kalean: Nafarroako jotak: Promesas de la jota.

**6.30ETAN**

Floridako parkeko kioskoan: Haurrentzako dantzaldia: Azkona.

**7ETAN**

Amárica plazan Jazza: Vocal Feel.

**7.30ETAN**

Machete plazan: Baztango dantzari taldea.

**9ETAN**

Machete plazan:
Dantza: larraindantza eta txulalai.

## GAUEZ

**11ETAN**

Floridako parkean
Dantzaldia: Siboney
Arriagako San Juan parkean:
3. su artifizialak, Bartzelonako Igual pirotekniaren eskutik.
Juan de Ayala plazan:
Pop-rocka: Fuera de Lugar eta Apotheke.

**BLUSA TXIKIAREN EGUNA ◀**
**LIN TON TAUN ◀**
**EGAN ◀**

**11.30ETAN**

Olagibel kalean:
4 zezensuzko eta musika-giroa: Gasteiz eta Ikuska fanfarreak.
Arkako plazan:
Gau-jaia: Creación.
Machete plazan:
Kantaldia: Egan taldea.

**12ETAN**

Foruen plazan: Kontzertua: Lin Ton Taun.

**12.30ETAN**

Espainia plazan: Gau-jaia: Alcatraz orkestra.

**11ETATIK GOIZEKO 3ETARA**

Musika kaleetan, Gasteiz eta Ikuska fanfarreekin.
Ibilbidea: San Frantzisko aldapa, Posta kalea, Andre Mari Zuriaren plaza, Mateo Moraza, Agirre Lehendakaria, San Prudentzio, San Antonio, Foruak, Independentzia eta Dato kalea; Blusen batzordearen fanfarre eta txarangak.



GASTEIZKO
HERRIKO TABERNAK

OLARIZU
Jose Uruñuela
Tfnoa: 13 49 18
Auzoko pintxorik onenak

ALDE ZAHARRA
S. Fco Xabier Kantoia
Tfnoa: 28 33 05
Poteo eta giro ona

ERDIALDEA
Ramiro Maeztu 6
23 31 92
Eguneko menua



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

abuztuak 8

## GOIZEZ

**9ETAN**

San Migel parrokian: Meza, blusa beteranoentzat.

**10ETATIK ORDU BIETARA**

Plaza Berrian: "Bereziak" gastronomi lehiaketa, blusa taldeentzat.

**11ETAN**

Zezen plazan: Zekorrak.

## EGUERDIAN

**12ETAN**

Cuchillería, San Prudentzio egoitza, Frantzia eta Errege Atea: Erraldoi eta buruhandien konpartsa.
Erdialdean:
Trikitixa kalejira: Gasteizko Trikitixa Eskola.
Arkako plazan: Pailazoak: Kakax, Kokox eta Kirriki.
Erdialdean:
Zirku-ikuskizuna.

**12.30ETAN**

Floridako parkeko kioskoan: Kontzertua: Udal musika banda.
Diputazio plazan:
Kontzertua: Eltziegoko banda.

**12.45ETAN**

Machete plazan:
Musika-giroa: Gasteizko Trikitixa Eskola.

**ORDU BATEAN**

Amárica plazan:
Txotxongiloak: Bihar.

**1.30ETAN**

Machete plazan:
Bertsolariak: Ricardo González de Durana, Dani Castaño eta Zigor Enbeita.

## ARRATSALDEZ

**4.45ETAN**

Zezenetara joatea.

**5.30ETAN**

Andre Mari Zuriaren plazan: Haurrentzako animazioa: Auskalo.

**6ETAN**

Zezen plazan:
Abonuko laugarren zezenketa. Olibenzako (Badajoz) Bernardino Pirizen abeletxeko zezenak, Miguel Báez "El Litri", Enrique Ponce eta Jesulín de Ubrique zezenketarientzat.
Vicente Goikoetxea kalean:
Jotak: Nagore anaiak.

**7ETAN**

Amárica plazan: Jazza: Dixie Kleta Jazz Band Trio.
Pradoko parkean:
Dantzaldia: Jaitxo taldea.

**7.30ETAN**

Machete plazan:
Danbolinderoak.

**8.30ETAN**

Zezenetatik itzultzea.

**9ETAN**

Machete plazan: Dantza: larraindantza eta txulalai.

## GAUEZ

**11ETAN**

Floridako parkean:
Dantzaldia: Xalem orkestra.
Arriagako San Juan parkean:
4. su artifizialak, Zaragozako Pirotecnia Zaragozanaren eskutik.
Juan de Ayala plazan:
Pop-rocka: Emputecidos eta Lapsus.

**11.30ETAN**

Olagibel kalean:
4 zezensuzko eta musika-giroa: Gasteiz eta Ikuska fanfarreak.
Machete plazan:
Kantaldia: Maixa eta Itziar.
Arkako plazan:
Gau-jaia: Oropendola.

**12ETAN**

Foruen plazan:
Kontzertua: Los Pekenikes eta Los Munstang.
Geltokiaren plazan:
Rancherak: El Dúo Chapala y su Ballet de Lindas Chamaquitas.

**12.30ETAN**

Plaza Berrian: Gau-jaia: Pepe Sánchez eta Estrellas de la Televisión orkestra.

- **RICARDO GLEZ. DE DURANA, DANI CASTAÑO ETA ZIGOR ENBEITA**
- **MAIRA ETA ITZIAR**
- **ENPUTECIDOS ETA LAPSUS**





### PAKA GUZMAN

**Alaves-eko jarraitzailea**

"Niri jaietako ekitaldi guztiak gustatzen zaizkit, eta, jakina, abuztuaren 8koak ere bai". Baina ekintza animatuak ditu gogokoen: trikitixa, jotak, dantzaldiak... Goizez ez da asko ateratzen; gehiago gustatzen zaizkio gauak. Zezenak eta fanfarreak maite ditu. Eta nola ez gau-jaiak. "Normalean gaueko hirurak arte ibiltzen naiz hortik zehar". Zerbait, ordea, gehituko lioke jaien egitarauari: :futbola. Neskaz jantzirik ibili ohi da Gasteizko jaietan. Laburbildu beharrez, hau esan digu: "Gazteekin zerikusirik duten ekitaldi guztiak maite ditut".












Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# abuztuak 9

## GOIZEZ

**10ETAN**

Espainia plazan: Dianak. Udal musika banda, udal





txistulari banda, Aldundiko txistulari banda, Eltziegoko banda, Kortesko (Nafarroa) banda, Rioja Alavesa txaranga eta gaitajole bandak: Indarra, Erletxo, Eltziego eta Goizerdi eta Iruñea.
Ondoren, udal musika bandak ibilaldia burutuko du kale hauetan barrena: Posta, Olagibel, Bakea, Jesús Guridi, Ortiz de Zarate, Florida eta San Antonio.

**10ETATIK 14ETARA**

Foruen plazako pilotakekuan:
Esku-pilota: Andre Mari Zuria saria.

**11ETAN**

Zezen plazan: Zekorrak.

**11ETATIK 15ETARA**

Foruen plazako bolatokian:
Bolo-jokoa: Andre Mari Zuria saria.

## EGUERDIAN

**12ETATIK 14ETARA**

Auzoetan:
Gasteiz eta Ikuska fanfarreak.

**12.30ETAN**

Floridako parkeko kioskoan:
Kontzertua: udal musika banda.
Diputazio plazan:
Kontzertua: Kortesko (Nafarroa) musika banda.

**12.45ETAN**

Machete plazan:
Musika-giroa: Gasteizko Udal Folklore Akademiako trikitilariak.

**1.30ETAN**

Machete plazan:
Bertsolariak: Unai Iturriaga, Jon Maia eta Igor Elorza.

## ARRATSALDEZ

**4.45ETAN**

Zezenetara joatea.

**5.30ETAN**

Loma Jenerala plazan:
Haurrentzako animazioa: Kukubiltxo taldea.

**6ETAN**

Vicente Goikoetxea kalean:

**UNAI ITURRIAGA ION MAIA ETA IGOR ELORZA**

**ZELEDON AGURTU ETA IGOTZEA**

Nafarroako jotak: Aupa Navarra.
Zezen plazan:
Abonuko bosgarren zezenketa. Cádizko Cebada Gagoren abeletxeko zezenak, Juan Mora, David Luguillano eta Pepín Liria zezenketarientzat.

**6.30ETAN**

Floridako parkeko kioskoan:
Haurrentzako dantzaldia: Chipilandia.
Postetxearen plazan:
Rioja Alavesa txaranga.

**7ETAN**

Amárica plazan:
Jazza: Cartoon Band.

**7.30ETAN**

Machete plazan:
Dantza.

**9ETAN**

Machete plazan:
Dantza: larraindantza eta txulalai.

## GAUEZ

**11ETAN**

Juan de Ayala plazan:
Pop-rocka: Los Electroplanos eta Los Siameses.
Espainia plazan:
Gau-jaia: Acuarium orkestra.
Olagibel kalean:
4 zezensuzko eta musika-giroa: Gasteiz eta Ikuska fanfarreak.

**GOIZEKO ORDU 1EAN**

Andre Mari Zuriaren plazan:
Jai bukaera: Zeledon agurtu eta igotzea. Azken traka.



### IZASKUN ARRUE

**Euskaltzalea**



"Niri hemengo gauzak gustatzen zaizkit. Abuztuaren 9an, hau da, jaien azken egunean, egiteko diren gauzen artean, dudarik gabe, Matxete plazako bi ekitaldi azpimarratuko nituzke: batetik, musika-giroa, Gasteizko Udal Folklore Akademiako trikitilariekin, eguerdiko ordu bata laurden gutxitan hasiko dena; eta bestetik, pixkat beranduxeago, ordu bata t´erdietan, hain zuzen, hasiko den bertso-saioa, Unai Iturriaga, Jon Maia eta Igor Elortzarekin. Nik oso atsegin ditut hemengo giroa, hemengo gauzak, bertsolariak..."


Ehiza • Arrantza
Kirolak
BELAKORTU
Frantzia kalea, 20
Tfnoa: 26 30 04




GUREA
jatetxea
Konstituzio Enparantza, 10
Telefonoa: 24 59 33




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Gure mostrongotxoak ere Gasteizko jaien alde!

**Gasteizko jaiak ospetsuak dira munduan, benetan gertaera alaia eta paregabea da eta. Urtero, abuztuaren hasieran, ikutu bitxi somatzen da airean, zerbait garrantzitsua gertatzeko atarian baikaude, Andre Mari Zuriaren omenezko festak, hain zuzen ere. Ze iritzi dute Gasteizko mostrongotxoek gure hiriko jaiei buruz?**
**Nola pasatzen dituzte egun alai horiek? Jakinmina asetzeko Olabide ikastolara hurbildu gara eta hango umeei galdera hau egin diegu:**



Lorea Zurimendi

## Zer iruditzen zaizkizu Gasteizko jaiak?



Niri Gasteizko festak asko gustatzen zaizkit, oso dibertigarriak dira, "guai" daude. Batez ere, barrakak eta suzko zezenak dira gehien gustatzen zaizkidan gauzak. Baina, orokorrean dena gustatzen zait.

**Nora, 11 urte.**

Gasteizko festei buruz dudan iritzia nahiko positiboa da, baina gehienetan jende asko dago, eta zaila da zerbait ikusi ahal izatea. Ondo legoke umeentzako jolastoki bat antolatzea, guk ere jaietan parte hartu dezagun.

**Jon Mikel, 11 urte.**

Nere ustez, oso ondo daude. Jokoak egotea gustatuko litzaidake: soka tira, soskor apostua... denek parte hartzeko moduko jokoak, bai eta karaoke bat ere.

**Ane, 11 urte.**

Gasteizko jaiak asko gustatzen zaizkit. Ondo pasatzen dut, baina bukatzen direnean pena hartzen dut . Zeledon atsegin dut, bere lekuan egon nahi nuke. Dibertigarria izango litzateke. Hemengo festak parranda egiteko ezin hobeak dira.

**Itzea, 10 urte.**

Gasteizko festak izugarri gustatzen zaizkit, baina zerbait aldatu beharra dago: aurreko urteetan beste botila lurrera ez botatzea. Gasteizko jaiek urte osoan izatea amets egiten dut.

**Unai, 10 urte.**

Oso politak eta interesgarriak dira. Jokoak onak dira, baina Igeldokoa bezalako atrakzioparke bat jartzea gustatuko litzaidake. Jende ospetsua ekarri behar da, ez Julio Iglesias-eta, Micky Mouse eta horrelakoak baizik, hau da, umeen munduko pertsonaiak.

**Mireia, 10 urte.**

Ongi pasa festak
EUSKARAZ!
GASTEIZ-ADUR: Errege Katolikoak 15 28 89 22
ZALDIARAN : Zaldiaran plaza 16 24 49 05
PINTO: Pintoreria 74 28 97 80
Txosnan egingo dugu topo elkarrekin
ika



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

Gasteizko jaiak izugarriak dira, nire ustez. Baina alde txar bat daukate: kaleak asko zikintzen dira ardo botilekin eta horrelakoekin. Mendizorro-tzako barraketan primeran pasatzen dut. Oso ondo legoke kirol ekitaldi gehiago jartzea ikusteko eta bertan parte hartzeko. Musika-jaialdiak eta umeentzako jokoak ere ezinbestekoak dira jaietan.

**Julene, 11 urte.**

Gasteizko festak politak eta dibertigarriak dira. Buruhaundiak kenduko nituzke ikaratu egiten bainaute. Ez nuke beste ezer aldatuko.

**Larraitz, 10 urte.**

Jaiak oso politak iruditzen zaizkit. Baina, jende gehiegi dagoenez, ezin da ezer ikusi. Nik ez dut kanpoko abeslaririk etortzerik nahi. Horien lekuan hemengo dantzariak, abeslariak eta musika-tresnak jarri nahi nituzke.

**Iñigo, 11 urte**

Jai hauetan, atrakzio-parke bat eta errusiar mendi bat egon behar dira gutxienez. Jende os-petsua ekarri behar da hemen ekitaldiak egin ditzaten. Esate-rako, futbolari famatuak etor-tzea asko gustatuko litzaidake.

**Aitor, 11 urte.**



# Jaiak zuenak dira ere. Ondo pasa, haurrak!

TXAPELARRI
TABERNA
kutxileria
83
JO TA KE

BAR KLAKÉ
KUTXA, 2
TFNO. 143883
GASTEIZ

HEGOALDE
euskaltegia
Florida kalea
58 behea
tfnoa 28 41 96
01005

TXIRRINDUZ
★ Txirringak
★ Txirrindularientzako jantziak
★ Osagarriak
Judimendi etorbidea, 12 • tfnoa. 28 73 48
01003 • GASTEIZ

OKOA kultur elkartea
Apdo. 3.306 VITORIA-GASTEIZ

BAZKIDE IZAN!
Defenda dezagun gure kultura

ARABAKO KULTURAREKIN KONPROMEZUA HARTU
Honen bitartez, adierazitako egunetik aurrera urtero, eta bestelako abisurik bat eman arte, OKOAk nire izenean bidaliko dituen 2.000 pezetako erreziborik, nire kontuan kargu eskatzen dizut.

IZEN/ABIZENAK ..........
HELBIDEA .......... HERRIA ..........
SINADURA .......... TELEFONOA ..........
BANKETXEA-KUTXA ETA SUKURSALA .......... DATA ..........

GASTEIZ BODEGA
JOSE MARDONES 12



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Txosnak jaietako piperra



**Los Santiagueros", Betagarri, Potato, Tapia ta Leturia... Talde horien izenak Udalak egindako jai egitarau ofizialetik at geratu dira. Horiekin, ordea, primeran pasatzeko aukera izango dugu Andre Mari Zuriaren aurtengo jaietan. Non? Txosnetan, noski. Txosnen gunea eremu itxi bat izatetik Gasteizko jaietako gune garrantzitsu bat izatera pasa da azken urteotan eta guztiontzako ekitaldiak bilduko ditu abuztuaren 4tik 9ra.**

> **"Gure programaren ekitaldiak jai ofizialaren osoagarriak dira, gainera Udalarentzat doanezkoak dira"**

**TXOZNEN BATZORDEAK** ezarritako ordutegi aldaketara ohitu beharko dute Gasteizko txoznazaleek. Egitaraua prest dago. Egia esan, aurten iragartzen diren ekitaldiak ikusita, ez da erraza izango beren proposamenari muzin egitea. Aurten, gauero bi kontzertu egin beharrean, bakarra izango dugu, ordu pare bat beranduago baina, hori bai, lehengoak baino luzeagoa. Ordutegi aldaketa soila dela ematen duen arren, apustu handia dela azpimarratu behar da. Aurreko urteetan ez bezala, jai hauetan Gasteizko musika taldeek kontzertuen azken zatian arituko dira eta izen handiagoko musikariak "telonero" izango dituzte, hala nola, E.H. Sukarra, Potato,... "Ez dakigu lortuko dugun, baina jendea erakarri nahi dugu kontzertuen zati potentea aurreratuz. Jendea behin bertan egonda, handik joan ez dadin saiatuko gara. Horrela, gainera, bertako taldeek giroa berotuta izango dute taularatzen direnerako. Aurreko urteetan, beren ekitaldia oso goiz izaten zenez, oso jende gutxi biltzen zen askotan".

## Kokapen aldaketaren onurak

Iaz aldatu zen txoznen kokapena Udalarekin negoziatu eta gero. Aurten leku berean izango diren arren, hau da, Marianistas ikastetxearen aurrean, tokien banaketa berriro antolatu behar izango dute hiru txozna berriri lekua uzteko. Litekeena da lau txozna katedralaren parkearen barruan jartzea eta kontzertuen lekua mugitzea. Hauteskundeak direla eta, txoznen batzordeak ezin izan du Udalarekin negoziatu. "Dena den, orain oso berandu da eta gu ez gara hemendik mugitu. Beraz, ez dugu inposaketarik onartuko. Gauden talde guztiei lekua egin behar digute gustatu ala ez".

1994an egindako aldaketa onerako izan zela onartzen du batzordeak. Alde batetik, alde nabaria somatu da garbitasunari

ITURRI TABERNA
Zapa, 57 GASTEIZ









Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

dagokionez. "Harearen gainean egotetik asfalto gainera egotera...". Bestetik jendeak ondo erantzun zuen eta arazorik gabe egin zuen Florida parketik Marianistas alderantz. "Are gehiago, lehen txosnetara hurbiltzen ez zen jendea ere etortzen hasi zela nabaritu genuen".

## Gero eta giro hobea

Urte dexente igaro dira Gasteizko jaietan txosnak jartzen hasi zirenetik. Garai hartan, duela hamazazpi bat urte, "Udalaren, instituzioen eta gizarte ofizialaren aurka jotzeko antolatu ziren txosnak". Horrek eragin handia izan zuen Udalaren eta txosneroen arteko harremanetan eta egun ere ezin daiteke esan erlazioak onak direnik. "Gezurra dirudi baina ez dugu lortu jaien egitarau ofizialean agertzerik. Hori ez da oso ondo ulertzen gure programaren ekitaldiak jai ofizialen osagarriak direlako. Gainera, Udalarentzat doanezkoa da". Aurtengo egitarauak hiruzpalau milioiko aurrekontua du; diru kopuru hori txosnen salmetetatik aterako da.

"Udalaren betiko jarrerak mezfidantza piztu zuen gizartearen zati batengan, eta txosnak drogazale eta punkien eremua bailiran aurkezten saiatu ziren". Txosnen batzordearen eguneroko lanak "aurriritziei buelta ematea lortu du". Egun Udalak ez omen du bat ere laguntzarik ematen baina jadanik oztopoak jartzeari utzi dio, txosnen batzordeko ordezkariak esan digunez. "Jarrera aldaketak gasteiztar batzuen iritzian eragina izan du eta azken urteotan lagun gehiago hurbildu da txosnetara".

Txosnen guneak gune alternatiboa izaten jarraitzeko asmoa agertu du txosnen batzordeak, baina, era berean, jai ofizialen osagarria ere badela azpimarratu du: "Guk ez dugu inoiz ghetto bat izan nahi izan, nahiz eta batzuek horretara bultzatu gaitutzen".

**"Aurtengo egitarauak Gasteizko musika taldeak indartu nahi ditu"**

Erreibindikazioetarako gunea da Luis Heintz kalekoa: "Askotan erreibindikazioek ez dute guk nahiko genukeen hainako sakontasunik baina hori lortzeko bide berriak urratzekotan gabiltza". Bide berri horien artean, Akelarrea azpimarratu behar da, emakumeari eskainitako egunean burutuko den ekitaldia. "Ikusi behar nola ateratzen den baina argi dago ideia ona dela, jaietan ezin baita hitzaldirik eman".




**Hona aukera ona!**
barnetegian edo euskaltegian
Peru 8 • 22 60 50
Jose Mardones 8 • 26 35 40
Arana 30 • 25 24 00
Gasteizko aek

ARTEPAN
Artisau Okindegia eta Goxotegia
Jesús Guridi, 2 • Tfnoak: 27 88 88 - 28 72 37
01005 GASTEIZ



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

sukalde txokotik



# Sukalde txokotik Santxotenarekin

**G**asteizko jaiak gainean ditugula, ohiko platerak alde batera utzi eta zerbait apartekoa prestatzeko tenorea egokitzen zaigu, sabelak sari berezi bat merezi duelakoan, urte osoan badaezpadazko otordu bat baino gehiago egin ondoren. Oraingo honetan, Xabier Santxotena sukaldari eta eskultorearen plater goxo eta eskultural batzuk ekarri ditugu orriotara. Ondo pasa jaietan eta on egin diezazuetela Xabier Santxotenaren ondorengo bitxi gastronomikoak!

## Kalabazin beteak

### Osagaiak:

Kalabazinak: 2 edo 3 ale handi.

Hegaluzea oliotan: lata txiki bat.

Oliba-olioa.

Arraultze egosiak: 3.

Gatza, limoia.

Alkaparrak: 50 gr. Alkaparrik lortu ezean pepinotxoak erabil daitezke.

Tomate-saltsa: 2 edo 3 goilaratxo.

Maionesa-saltsa.

### Nola egin:

Kalabazinak garbitu, zuritu eta erdibitu (mutur batetik besteraino ebakiz). Egozten eduki 20 minutuz. Ura kendu bai eta kalabazinen barruko edukia ere. Erretilu batean nahasi kalabazinen barrukoa, arraultza egosi zatikatuak, hegaluzea, alkaparra batzuk eta tomate-saltsa.

Mahairatzeko orduan, maionesaz estali kalabazinak eta alkaparrak edo pepinotxo xehatua gaineratu. Hotza mahairatzen da plater hau.

## Kalabazin beteak

### Osagaiak:
(4 pertsonentzat)

Txahal-hegala: 1.

Txahal-xehakina: kilo erdi bat.

Txerriki-xehakina: 250 gr.

Arraultze egosia:1.

Piper morro gordina: ale erdi bat.

Urdaiazpikoa: 100 gr. tiretan ebakia.

Trufa beltza: ale bat.

Oportoa: kopa bat.

Hezurrik gabeko olibaran berdeak: 50 gr.

Arraultze egosiak: 2.

Ogi papurra esnetan blai: 50 gr.

Perrexil xehatua, gatza, piperrautsa.

Saltsaren osagaiak:

Tipulak: 2.

Baratxurikiak: 4.

Tomatea: 1, freskoa eta heldua.

Ardo zuri lehorra: baso bat.

Oliba-olioa.

Saltsa sendoa izanez gero, salda behar

### Nola egin:

Txahal-hegala erditik ireki eta mahai gainean ezarri oso-osorik. Gero, gatzaztatu, piperrautseztu eta horri erantsi txahal-xehakina, trufaz, haren saldaz, arraultzez, esnetan blaiko ogi papurrez, perrexilaz, oportoaz, gatzez eta piperrautsez horniturik.

Nahasketa eskuz zabaldu eta urdaiazpiko zatikatua, arraultz egosiaren laurdenekako puskak eta piper gorri zatikatua gaineratu. Soka batez poliki-poliki lotu. Gero, hori guztia bildu paper gardena erabiliz. Horren ondoren, lotu. Lapiko batean ezarri barazkiekin batera. Barazkiak ezin dira bero egon. Astiro irakiten eduki, ordubete eduki ere, haragi kilo bakoitzeko. Saltsa iragazi.

deportivos AZOKA kirolgaiak
Zure kirol- oinetakoak
Gorbea 34 tfnoa: 24 75 04
Gorbea 27 tfnoa: 24 22 05
Ariznabarra 17 tfnoa: 14 71 33
Fax: 22 07 19

MIKO
izozkiak



Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# Koko tarta

## Osagaiak:

| | |
|---|---|
| Koko xehatua: 150 gr. | Esnea: litro erdi bat. |
| Irina: 150 gr. | Limoia: azal bat. |
| Arraultzak: 4. | Countreau-a: 2 goilaratxo. |
| Azukrea: 200 gr. | |

## Nola egin:

20 zm-ko moldea prestatu gurinez igurtzeko eta irinaztatzeko. Hiru arraultz sartu irabiagailuan bai eta 75 gr azukre eta limoi azal bat ere. Bizkotxoa egin irina gainetik botaz. Labea 180 gradutan dagoela, dena sartu.

### Koko-krema:

Lapiko txiki batean paratu kokoa, 100 gr azukre eta 40 gr irin. Arraultzak ondo irabiatu eta, esnea irekiten dagoela, biak bat egin eta irakiten eduki minutu bat.

### Azken ikutuak:

Bizkotxoa ebaki maila bat edo bi eginez. Likoreren batez zipristindu dena. Krema gainean ipini. Bukatzeko, "glan" izeneko azukrea edo merenge italiar bat bota gainetik.

# DeNb OrApa SaK

| | 1 | 2 | 3 | 4 | 5 | 6 | 7 | 8 | 9 | 10 |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 1 | L | E | P | O | A | ■ | B | I | L | A |
| 2 | ■ | G | A | S | T | E | I | Z | ■ | T |
| 3 | H | A | R | T | Z | A | K | U | M | E |
| 4 | I | ■ | E | R | O | ■ | I | T | O | ■ |
| 5 | Z | I | T | U | ■ | L | A | I | D | O |
| 6 | ■ | L | A | K | U | A | K | ■ | E | L |
| 7 | A | T | ■ | A | T | X | ■ | A | M | A |
| 8 | I | Z | U | ■ | Z | A | I | N | ■ | T |
| 9 | D | E | S | P | I | T | ■ | D | A | U |
| 10 | A | A | ■ | A | A | U | ■ | U | R | A |

ZEHARRETARA: 1. Burua eta gorputza lotzen dituena. Bilatu aditzaren infinitiboa. 2. Gure hiria. 3. Hartzaren ume. 4. Iodoa. Zoro. Arnasik gabe hil. 5. Zereala. Iraina, desohorea. 6. Zingirak. (Ald.) Atzizki bat. 7. Kanpo. Haitz. Sortu gintuena. 8. Beldur, ikara. Itxaroten. Tarragonako autoetan. 9. Hisia, tema. Bizkaieraz, du. 10. Alkoholiko Anonimoak. Erakuslea. Edateko.
GOITIK BEHERA: 1. Berrogeitamar. Iparraldean haiz. Opera ospetsu bat. 2. Euskarazko Gaitasun Agiria. Mailuaz sartzen da. 3. Horma. (Ald.) Erretzen duena. 4. Hegazti handi bat. Kimikako neurri. 5. Ez gaur, ez bihar. 5. Abandonatua, lagatua. 6. Bizkaiko herriska. Askatu, lasaiatu. 7. Bikoitzak. Iodoa. 8. Beldurti. Lertxundi idazlearen izena. 9. Berrogeitamar. Informatikako tresna bat. Ez eme. 10. Sartzeko eta irteteko. Uhina.




arabarrok euskarari bai




Elkargunearen kamisetak salgai
Herrikoia liburudendan
800 pezetatan soilik

ITZULKA

Diego Martínez de Alava, 7, 3. esk
Tfnoa. 27 44 26
01004 GASTEIZ





asmo ederrak aire zabalean
la calle
taberna
Dultzaina , 10

JANTZI ETA OPARIAK




Kutxilleria, 40
Tfnoa: 26 07 10
GASTEIZ

TXUSTA
TABERNA
ESPEZIALITATEA: BAT ERE EZ
Mateo Moraza kalea
GASTEIZ




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




Fundación Sancho el Sabio Fundazioa




# Jaiak Txosnetan

## etorri gurekin!



ABUZTUAK 4
**"GASTEIZEN BESTE ALDEA"**
Saltsari eskainitako eguna
Gauekol 1etan: ERREKA
Goizeko ordu 2etan: "Los Santiagueros" (Kubako musika-taldea)

ABUZTUAK 5
**"AMNISTIAREN EGUNA"**
Goizeko ordu batean: Gozategi anaiak
Goizeko 3retan: "Sálvate si puedes"

ABUZTUAK 6
**"EUSKAL EGUNA"**
Euskararen aldeko bazkaria eta ekitaldiak
Gaueko 11etan: EH Sukarra
Goizeko ordu 1ean: Os diplomaticos
Goizeko 3retan: Betagarri taldea

ABUZTUAK 7
**"DIRUAREN EUROPAREN KONTRA"**
Gaueko 11etan: Spoke and the whays
Goizeko ordu 1ean: Etsaiak
Goizeko 3retan: Obligaciones del Estado

ABUZTUAK 8
**"INTSUMISIOAREN EGUNA"**
Gaueko 11etan: Potato
Goizeko ordu 1ean: Tapia eta Leturia
Goizeko 3retan: Contrabanda.

ABUZTUAK 9
**"EMAKUMEAREN EGUNA"**
Akelarrea
Gaueko 11etan: Trikitrixa Kontrairo taldea
Goizeko ordu 1ean: Beti prest

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa

# GASTEIZKO UDALA: ZERBITZU ELEBIDUNAK



# Ondokoetan badago euskaraz dakien langilerik

| DEPARTAMENTUA | ZERBITZUA | HELBIDEA | TELEF. | FAXA |
|---|---|---|---|---|
| **UDALETXEA** | PRENTSA KABINETEA | Espainia plaza, z/g | 16 13 37 | |
| | GIZARTE ONGIZATEA (ARGIBDEAK) | Espainia plaza, z/g | 16 13 44 | 16 13 60 |
| | GAZTEEN ARGIBIDEETARAKO BULEGOA | Espainia plaza, z/g | 16 13 30 | |
| | PERTSONAL SAILA | Espainia plaza, z/g | 16 11 41 | 16 16 53 |
| | IDAZKARITZA | Espainia plaza, z/g | 16 13 20 | |
| **BULEGO TEKNIKOAK** | ARGIBIDE ETA ERREGISTRO BULEGOA | Dato, 11 | 16 11 87 | 16 11 88 |
| | ERROLDA ETA SOLDADUTZA | Dato, 11 | 16 11 06 | |
| | BORONDATEZKO DIRUBILKETA | Dato, 11 | 16 16 68 | |
| | ZERGEN GESTIOA | Dato, 11 | 16 11 33 | |
| | INGURUGIROA | Dato, 11 | 16 11 20 | |
| **OSASUN ETA KONTSUMO SAILA SAILA** (DEMSAC) | KONTSUMITZAILEEN INFORMAZIORAKO UDAL BULEGOA (KIUB) | | 16 12 40 | |
| **UDAL ARTXIBOA** | ARTXIBOA-ARGIBIDEAK | | 16 14 89 | 16 14 99 |
| **ETXEBIZITZA ETA HIRI BERRIKUNTZARAKO UDAL ERAGINTEGIA** | ARGIBIDEAK | | 16 12 88 | |
| **VILLA SUSO JAUREGIA** | ARGIBIDEAK | | 16 12 70 | |
| **HEZKUNTZA SAILA (IME)** | | Fray Zacarias | 16 12 16 | |
| **GIZARTE ETXEAK** | JUDIMENDI | Urriak 12 kalea, z/g | 16 17 40 | |
| | LANDATXO | Santa María kalea, 4 | 16 16 82 | |
| | IPARRALDE | Zuberoa plaza, z/g | 16 17 50 | |
| | ABETXUKO | | 24 47 14 | |
| | ARIZNABARRA | | 13 36 91 | |
| **EUROPA GIZARTE-ETXEA** | ARGIBIDEAK-KULTURA | | 16 12 31 | |
| | BILTZAR ETA TURISMO BULEGOA | | 16 12 61 | |
| **KONTZIENTZI ERAGOZPENERAKO BULEGOA** | | | 13 36 91 | |

VICTORIA HAEC EST QUAE VINCIT

AYUNTAMIENTO DE VITORIA GASTEIZKO UDALA

Fundación Sancho el Sabio Fundazioa